

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Ekainak 2 25. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Hauek ditugu euskara ikasi nahi izan duten langileak

Lanpostuak euskalduntzeko plana ULGORen

Euskarak egoera normalizatu bat bizi aurretik bizitzaren esparru ugari euskaldundu behar dira, horien artean garrantzitsuenetariko bat lan mundua dugu. Ulgor kooperatibak hartutako erabaki baten arabera 1985erako jendearekin harremana izan behar zuten lanpostuak euskalduntuta izan behar zituen. Baina arazo desberdina dire medio ez zuen erabakia bete. Aurten AED elkarteak Euskalan kanpaina martxan jarri ondoren, Ulgorren gaia berpiztu egin da eta hartutako konpromezuaz gogoratu dira. Hau horrela izanik, lanpostu hauek betetzen dituzten pertsonak euskalduntzeko plana jarri du martxan, beti ere langileak nahi izanez gero.

(14. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Badatoz hauteskundeak

Hauteskundeetako kanpaina betebeterik gaude. Baduzu gure orrialdeetan informazio freskurik.

(9. eta 10. or.)

Antzerkia

Gure herriaren kultur eskaintza aberasten doa. Horra hor, esaterako, asteburu honetako bi antzerki saioak: "Ni naiz Kapitan Pilotu" eta "La señorita Julia".

(11. or.)

ELAKARRIZKETA

Joxemari Astigarraga

Izatez elgoibartarra, duela bost urte tik hona, Arrasateko parrokoa. Erlijio eta beste gai batzuei buruz dituen eritziak entzutean bai baino gehiago harrিতa geratuko da.

(17. or.)

PODIUMA

Ramon Jausoro

Bere 2.22:00rekin joan den igande an, Bilbon, Euskadiko Maratoiko Txapelduna suertatu zen.

(19. or.)



MODELO
BERRI-BERRIA
MUGARRI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:	
Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorria	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011
Gurutze gorria:	
Bergara	765576
DYA	
Antzuola	766291
Anbulatorioak	
Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116
Anbulantziak:	
Gipuzkoako ambulanziaz	458744
Udaltzaingoa:	
Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322
Ertzantza:	
Arrasate	797199
Suhiltzaileak:	
Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800
Matxurak:	
Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Garraioak:	
Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419
Hirugarren adinarentzako zentruak:	
Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157
Kontsumitzailearentzako informazioa:	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	798777

OSTIRALA 2

- Zinea: Alai: "El regreso de los muertos vivientes".
Novedades: "Las amistades peligrosas" 10,30etan.
- Hitzaldia: Monterronen, 6etan:
"Eskulanak eta espresio artistikoa" (J. A. de la Casa), S.Fko. X. Ikastolaren erakusketari amiera emateko.
- Antzerkia: Zaldibarren, 10etan, Eke-kei taldearen "Ni naiz kapitan piloto", (dohain)
- Mitina: PSOE, Casa del Pueblo, 7,30: J.L.Lana, Gonzalez Orus eta Egiguren..
- Errekaldeko jaiak (Oñati):
- 11etan, Rock jaialdia: Hor Konpon, A santo de qué.
- Goardiako farmazia: L. Amezua.

LARUNBATA 3

- Zinea: Alai: "Conexión Tequila"
Novedades: "Las amistades peligrosas".
- Alta Menni Ospitalaren jaiak (Santa Ageda):
- 4etan: dantzaldia, "Lagunak" taldeaz (berbenaz jantzita).
- Antzerkia: Amayan, 10,30etan,
Orain taldearen "La señorita Julia".
- Errekaldeko jaiak (Oñati)
-5etan: Mus txapelketa
relanpagoa plazan.
-10,30etan: dantzaldia: "Eguzki".
- Leintz Ballarako Alternatibaren Eguna Oñatin:
-1,30etan: mitina San Martinen: K. Landa, L. Etxebarria.
-2,30etan: parapente ikuskizuna.
-3,30etan: trikitaliak.
-4,30etan: haur-jolasak herri-kirolak.
-6etan: sokamuturra.
-7etan: Bertsolariak, Pantxo & Peio.
-8,30etan: makailau tortila txapelketa.

- 10,30etan: Kiroldegian: Delirium Tremens. M-ak.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz.

IGANDEA 4

- Zinea: Alai: "Conexión Tequila".
Novedades: "Las amistades peligrosas" 5, 7,30, 10,30.
- Alta Menni jaiak:
-4,30etan: zinea: "Aquí un amigo".
- Goardiako farmazia: A. M. Morales.

ASTELEHENA 5

- Zinea: Alai: "Conexión Tequila"
Novedades: "Las amistades peligrosas" 7,30etan.
- Alton-amonen astea Iturbide Egoitzan:
Ikastolaren Abesbatzaren emanaldia.
- Hitzaldia: Mendiarren Astea: Abaroan, 9etan. Kirol Medikuntza (R. Garate).
- Goardiako farmazia: Ruiz Torre.

ASTEARTEA 6

- Zinea: Alai: "Conexión Tequila".
- Alton-amonen astea Iturbide Egoitzan: jaialdia Txatxipel taldeaz.
- Goardiako farmazia: S. Español

ASTEAZKENA 7

- Hitzaldia eta proiektzioa: Mendi-astea: Abaroan, 9etan: "Yosemitek Patagonia" (Miriam Garcia).
- Alton-amonen astea:
Herriko Kristau gazteen emanaldia.
- Goardiako farmazia: Corcuera

OSTEGUNA 8

- Zinea: Amayan, 8,30etan: "El festín de Babette" (Gabriel Axel).
- Goardiako farmazia: Irizar

IKASTAROAK

- Argazkia: Gatzagako Kultur Etxean, Ekainak 10, 17 eta Uztailak 1,8 (4-8). Irakaslea: Esme Gonzalez. Izenemateko epea: Ekainaren 2 arte. (Kristina, 79 75 45 edo Marisa 79 14 94).
- Alpagatak: Gatzagako Kultur Etxean. Izenemateko epea: Ekainaren 2 arte (79 75 45 edo 79 14 94).

HITZALDI ZIKLOA

- Union Cerrajerako jubilatuentzat (bereziki): gai hauek tratatuko dira: osasuna, jubilatuen egoera psikologiko berria eta aisialdia. Noiz: Ekainaren 7an eta 8an, 5etan, Gipuzkoako Kutxan.

ERAKUSKETA

- Aita Menni Ospitalean (Santa Ageda): Ospitalaren argazki zaharrak eta marrazkiak, Musika aretoan, Ekainaren 5 arte.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz deTuesta, Harry Zاراia,
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karme-
le Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan
Martin Elexpuru, Mikel Arregi,
Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Mertxe Garai,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galafena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Inberti ezazu diseinutan!

Moda sektorea garatzeko erabili ohi da diseinua, historikoki; industri diseinua ipini da gure egunotan modan. Horratx erreflexio xehe bat gauregun gure gizartean gertatzen ari den fenomenoaz. Eta gizartea aipatzean, era orokorrez egiten dut eta ez -norbaitek pentsa lezakeen bezala- enpresa munduari dago-kion ikuspuntutik bakarrik. Izan ere, industri diseinua galdegai baitugu bizitza arrunteko solasaldietan; futbolaz, zine edota talde politikoen gorabeherez adina mintzaten da diseinu mota horretaz txikiteo eta afa-losteko elkarrizketetan.

Perretxikoen lez sortu dira disei-nulari profesionalak. Komunikabi-deek zentru berrien inaugurapenak ezagutarazten dizkigute ia egunero. Ikastaroak, berriz, nonahi eratzen dira, inskripzioengatik ikaragarri-zko diru kopuruak ordaindu behar direlarik. Badirudi, bapatean indus-tri mundua diseinuaren birusak jota izan dela. Eta ziztu bizian, berresku-ratu nahi omen da alperrik galdu ei den denbora.

Julio Caro Baroja izan zen, uste dut, euskaldunok sortzeko duten ahalmenaren ondoan, sorkuntza apaindu eta edertzeko gaitasunik eza salatu zuena. Nik ez dakit norainoko errealitate daitekeen baieztapen hori; "magister dixit" eta gu ikasleak gara. Dena den, euskaldunok egin egin dugula egia da; goldea, haitzu-

rra, gurdia, altzariak, serralak, al-tzairua, itsasuntziak, zenbakidun kontrolako makinak, elektragailuak, laser izpiak..., hau da, baserri-kultura batetik zibemetikako gizar-teak beharrezkoak dituen produk-tuetaraino igaro da Euskal Herria, produzitzen eta produzitzen.

Ekonomi mundua hain aldrebes-tua dugun une hauetan, berriz, arra-kastaren giltza ez datza ekoizpena-rengatikako ekoizpenea, duela hogei urte arte izan zen bezala. Gauregun kalitatea eta konzeptu horri atxiki-tzen zaizkion osagarriak ditugu kontutan edukitzekoak, edozein indus-tri prozesuri ekin aurretik. Haie-tako bat, agian erreferentzi markoan sartu den azkenetakoa, diseinua dugu. Produktuaren diseinua, mer-katal lehiaketari gutxieneko arrakas-ta-baldintzez aurre egiteko bitarte-koa bilakatu da, produktuaren funtzionaltasunari eta horren irudiari nolakotasun diferentzialak eskain-tzen dizkielarik.

Kaleko gizaki arruntak CAD, CAID, CAM eta horien gisako ter-minologiaz hasi gara ohitzen, hitz horien esangura zein den gehienetan ezezaguna zaigun arren. Baina, ba-dirudi, uhin berriak harrapatu gaitu eta hemendik lasterrera berzuzenke-ta gogor bat (beste bat!!!) jasan beharko dugu, abiadura itzelaz doan zibilizazio honen trenean jarraitu nahi izango badugu.

Josemari Velez de Mendizabal

EDERRA



Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

KAJOI TABERNA

**erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27**

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE



Iturriotz,9 Tfnoa:799457

Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34



Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Joxe Aranzabali

Gauzak esateko moduak eta moduak irakurri dut ARRASATE PRESS aldizkariaren 23. alean Joxe Aranzabalek egindako aipamena. Arazoa zera da, Arrasateko Udal Euskaltegiko talde bat LAINO GUZTIEN AZPITIK...saiora etorri zela eta bi zertzelada hauek gertatu omen ziren:

1.— *Heldu baino ez eta Amatiñok berak, hotz hotzean, "bueno, nahiz eta ikusten duzuen gustatu ez, zuek txalotu, eta gogotik gainera"*.

2.— *Juanito Zelaiak ikasle haiek zertara etorri ziren itaundu zionean, nik "horiek? txalo egitera" erantzun omen nuen, merkantzia gehiegi estimatzen ez duenaren eran eta mondragoetarrek entzuteko gisan.*

Ondorioz, egiten zaidan kritika honako hau bide da, alegia, gauzak esateko moduak eta moduak daudela.

Nire aldetik esan dezakedana zera da:

1.— Nahiz eta gustatu ez txaloak jotzeko ordena, gomendioa eskaria edota dena delakoa astero astero esan zaie bertaratu diren talde guzti-guztiei. Eta denek, salbuespenik gabe, arrasatearrek tarteko, barre egin izan dute, mundu guztiak ulertzen bait du zein giro eta testuingurutan esaten den.

2.— Nik ez nion Juanito Zelairi leporatzen zaidana esan. Zelaiak, urteek ematen duten patxadaz eta filtrorik ezaz, lasai asko galdetu zidan: "Horiek txaloak jotzera etorri al dira?" edo honelako zerbait, eta nik erantzun: "Bai".

3.— Guzti hau, noski, arrasatearrek entzuteko moduan eta inondik ere ez ezkutatzeko asmotan, zorioneko arrasatearren lehen hilara niregandik metro eskasera bait zegoen, ohi denez. Ezin ba, nahita ere, bereziki entzuteko deitua den jendearean ez entzuteko moduan hitzegin.

4.— Guzti hau, esan dezagun, piloto gorria noiz piztuko eta programa hasteko pare bat minutu falta zirela. Gauzak esateko moduak eta


moduak daude, jakina, baina baita denborak eta denborak ere. Ni une eta momentu horretan agian ez naiz erantzunik protokolarienak emateko mutilik iaioena, baina zenbat denbora izan dute Joxe Aranzabalek eta bere kontagileek esandakoa esateko eta idatzitakoa neurtzeko?

5.— Nik ez dut sekula jendea merkantziatzat hartzen, zer esanik ez estimu urritzat, eta are gutxiago esaterik zilegi bazait- Arrasateko Udal Euskaltegia. Aurpegian sumatu ez bazitzaian ere, ni erabat poztu nintzen talde hura nongoa izango eta Arrasateko Udal Euskaltegikoa zela erantzun zidatean. Zenbaitek ez dakien arren, Arrasateko Udal Euskaltegia izan zen ni Jaurlaritzan lanean nengoenean, gogo gehiagoz bultzatu nituen euskaltegietako bat eta Udalaren aldetik laguntzarik gehien, serioen eta komentzituena aurkitu nuenetakoa, Ardantza bera alkate zelarik, hain zuzen ere. Eta momentu horretan, argi gorria noiz agertuko zain nengoela, orain dela zortzi-bederatzi urtetako burutazioak etorri zitzaizkidan gogotara eta harro asko pentsatu nuen ahaleginak merezi izan zuela eta orain dela zortzi urte nekez pentsatu neza keela, Arrasateko Udal Euskaltegiaren obrak miatzen ari nintzela, hainbat urte gutxi geroago "Laino Guztien Azpitik..." ikasle talde bat izan-go zenik.


6.— Dena dela, txarrean edota onenean, gaizki esanak barkatu eta gauzak beti alderdirik okerrenetik ikusteko gertu daudenetik libra gaitzabela gaitzetik. Amen.

Berriro ere barkatu eta hurren arte.

Amatiño, 89-5-31.



Zer deritzozu partidu politikoek hauteskundeetan gastatzen duten diru kopuruari?




Ruben Arriolabengoa
(langilea)

Ez litzateke duro bat bera ere gastatu behar. Dirua horretan gastatu beharrean beste mila gauzatan gasta lezakete, eta gezurrak besterik ez esateko.



M^a Angeles Zeziaga

Beno, ez dut zifra zehatzik, baina baietz uste dut. Guk politikan sartuta ez gaudenok diru-kanpainetan gastatzen den diruari gehiegizkoa deritzogu, kontutan izanik denon dirua erabiltzen dutela eta beste mila gauzatan erabil dezaketela diru hori. Politikoek ostera, bestelako eritzia izango dute.



Gloria Uribetxebarria

Diru gehiegi gastatzen dutela uste dut. Beste gauzatarako dirua behar da eta horretan gastatzen den dirua gehiegizkoa dela uste dut.



Alberto Zaitegi
(langilea)


Diru larregi gastatzen dutela uste dut. Gainera alperrik dela uste dut.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tel. 79.46.04

ESKORIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

BAIETZ

GOZOKIEN AUTOZERBITZUA

Bisita gaitzazu

Zeharkale estalia. ARRASATE

**APARTAMENTU,
ETHEBIZITZA
ETA
BUNGALOWEN**

**SALMENTA
ETA
ALOKAIRUA.**

**TORREDIEJA
ETA
VILLASOLLOSA**

Informazioa:

Enrique Mendieta

Kontzesiño kalea 6, etxabea

“Arrasateko Auzo Lagun enpresak eskola eta lantegietako jana maneaten du, baita behar den lekuraino eraman eta zerbitu ere. Ez da enpresa sortu-berria. Hogei bat urte daramatzate langintza horretan eta itzal handia hartu dute. Urte guzti hauetan higiene-arauak zehatz-mehatz bete dituzte, eta ez alferrik. Ez omen dute infekzio-arazorik izan. Ez da arlo honetan hori esan dezakeen lantoki asko izango”

(HABE aldizkarian)

“Eguneroko politikak problema ugari dakar erabakiak hartu behar direlako, denak ezin direlako pozik utzi, eta horrek apurka-apurka eragin handia du. Orduan erreleboa egin behar da, eta ni tendentzia guztiei bateratzaile hautatu banaute, iharduera honetatik at ibili naizelako da; beraz, nire inguruan ez dut kontrako jarrerarik sortu”

(Anjel Larrañaga, EAko Gipuzkoako Lehendakari berriak “Gaur Express” egunkarian)


“Momentu klabe batean egindako ekintzak dira honako hauek (inkontrolatuena). Herri honetan aurrera egiten duten hainbat gauzek geldiarazteko, hau da, gazteak beldurtzeko dirudite. Errezena ezetz esatea litzateke, baina eraso hauek nolabaiteko eraginik sortzen dutela nabarmentzen da. Hala ere, gazteek erantzuten duten neurrian euren kontrako arma bilaka daiteke, antolaketa derrigorrezkoa suertatzen bait da. Nire eritziz, jendearen ustean nahiko garbi dago nork egiten dituen honelakoak”

(Jon Sarasua bertsolari aretxabaletarrak “Argia” astekarian)

“Hizkuntza desagerpen-zoritik normalizaziora eraman duten herri guziek -Quebec, Israel-, lan mundua izan dute lehen abiapuntuetatik. (...) Lituaniarrak eta estoniarrak ere ederki ohartuak dira hizkuntza bat berreskuratzea ezinezkoa dela hiztunak bizitzaren herena ematen duen alorretatik kanpo baldin badago. (...) Gure artean, Arrasate aldean plazaratu diren zenbait inizatiba xume kenduz gero, han-hemenka komeniotan euskara ikasteko abantailen bat da alde honetatik aitzina eman den pauso bakarra”

(Aingeru Epalza, “Martikorena”, kazetariak “Nafarroa Gaur” gehigarrian)

Zer da ozonoa? Zeren eraginez ari da atmosferan gutxitzen? Zeintzu izan daitezke gutxitze horren ondorioak?



Ozonoa oxigenoz osatutako konposatu kimiko bat da. Bera sortzeko oxigenoa egotea eta eguzkiak gogotik jotzea da beharrezkoa. Mundua Amazonia dugu ozonoa sortzen duen lekurik garrantzitsuen. Ozonoa sortu ondoren gora igo eta mundu osoan zehar hedatzen da, bereziki poloetara hedatzen delarik.

Ozonoak bi eginkizun nagusi ditu, batetik eguzkiak igortzen dituen izpi ultramoreen iragazki gisa funtzionatzea eta bestetik, gauze lurrak igortzen duen beroa (izpi inframorea) guttiz espaziora joan ez dadin termo gisa funtzionatzea.

Duela urte batzu bereziki hegopolan ozono maila asko gutxitu zela eta une batzutan ia agertzen ez zela somatu zen. Faktore askok izan dezakete eragina gutxitze honetan, baina bereziki CFC konposatu kimikoek eragiten diote ozonoari. CFC produktu hauek aerosol, enbalaia materialetan, hozkailuek hotza sortzeko erabiltzen duten likidoak etab. etan aurki daitezke. CFC hauek atmosferara igo eta poloetara hedatzen dira. Poloetan dagoen baldintza klimatiko bereziek eta atmosferan dagoen hotz handiak erreakzio kimiko berezi batzuk sortzen dituzte CFC hauetan eta konposatu hauek duten kloroak ozonoarekin erreakzionatzen hasten dira. Cl molekula batek ozono 100.000 molekula suntsi ditzake. Ozono maila jaisten bada teoriarik behintzat eguzkiak, gogor jotzen duela, erredurak, azaleko kantzerrak arazo genetikokoak, landareak aldatzea, etab. gerta daiteke eta gauze hotz handiak.

Joxerra Aizpurua
Eluyar Taldeko kidea.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA


Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a



**Klase
praktiko
eta
teorikoak**

**Olarte, 30
79 89 89**



Arrasateko Udalak 1989ko Maiatzaren 5ean egindako osoko bilkuran honako akordioa hartu zuen:

- Hogeitamar eguneko epeaz jendaurrera ateratzea U.13.1 (Roneo) Unitateari eta U.13.1 (Biteri Etorbidea) eta U.12.1 (Union Cerrajera)-eko zati bati buruz, Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Elementuak Aldatzeko aurrelaburpena, "Lau-Kalea, S.A"-k sustaturitakoa eta Blas Urbizu Zabaleta Jaunak idatzitakoa Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako elementuak aldatzeko Aurrelaburpena, iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, eta, hala eritiz gero, planeamendurako beste alternatiba batzuk ere bai.

Arrasaten, 1989ko Maiatzaren 8an
ALKATEA

DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

Ekainaren 7an, arratsaldeko 7etan, Arrasateko Monterron Jauregian, Epeleko hondakin solido geldoen isurtegi kontrolatuaren proiektuari buruz informatzeko hitzaldia egingo da.

Hitzaldi honetan ondorengo pertsona eta entitateek parte hartuko dute:

- **LURGINTZA**, Geologia kontsulta-bulegoa.
- **ARANZADI**, Zientzi Elkarte
- **IMPOLUSA**, proiektuaren idazlaria
- **Deba Garaiko Udal Elkarte**ko arduradun teknikoak.

Interesatu guztiei dei egiten zaie.

LA SEÑORITA JULIA



ORAIN antzerki taldea
compañía de teatro

Eguna: EKAINAK 3, LARUNBATA

Tokia: AMAIA ANTZOKIAN

Ordua: GAUEKO 10etan

Sarrera: 300 pta.

ETEO

ENPRESA-IKASKETEN UNIBERTSITATE-ESKOLA - OÑATI

1989/90 IKASTURTERAKO AURREINSKRIBATZEA

* ENPRESA-ZIENTZIAK:

Aurreinskribatzearen epea: Ekainaren 1etik 30era.

IDAZKARITZAREN ORDUTEGIA: 9etatik 1etara ETA 3etatik 6etara

E.T.E.O. - Oñati - Tfnoak: 78 13 11 eta 78 12 51

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

**ARRASATE
PRESS**

denon artean egiteko
bidali zuen
kolaborazioak

T x a n d a k a

Garezurren kalapita

Australiar aurkitu berri dute Afrikatik eta Ekialde Hurbiletik at inoiz topatu den giza garezurrik zaharrena. Baina aurkikuntza honek istiluak berpiztu ditu Australiako aborigene eta arkeologoen artean.



Iñaki Irazabalbeitia*

Bi taldeok Australian topatutako giza hezurren etorkizunari buruz ez dira ados jar-tzen.

Garezurra Hego Gales Berriko mendebaldean dagoen Mungo la-kuko duna hareatsu batean dago eta partzialki bakarrik hondeatuta da-go. Bertako aborigeneek ez dute ar-keologoen garezurra ikertzeko ber-tatik erauz dezaten nahi.

Garezurrak duen posizioagatik, 36.000 urte ditu gutxienez eta ar-keologoen uste dutenez karbono(14) bidezko datazioak 40.000 mila urteko adina eman diezaioko garezurrari. Gainera oso ondo kon-tserbatu da eta aurpegiako hezur txikiak oraindik osorik dirautela oraindik dirudi.

Mungon aurkitutako garezurrak, Australiako giza aztarnetarako esku-bidea nor duenaren arazoa berpiztu du. Arkeologoen amorru bizian jar-ri ziren Commonwealth-eko go-bernuak Melbourne-ko museoko hezur aborigeneen bilduma handia aborigeneei itzultzeko erabakia hartu zutenean. Aborigeneen nahiei jaramon eginez, eskeleto horiek bir-lorperatuak izango dira.

Bilduma honetako hezurdura gehienek 5.000 bat mila urte dauz-

kate, baina 12.000 eta 15.000 urteko hezur-durak ere badira tar-tean.

Arkeologoen uste-tan, hartu den neurri hau ez da egokia. Izan ere, oraingo abori-geneak garai bateko haien oinordekoak di-ren baieztatzerik ez

bait dago. Adineko aborigeneek iraintzat hartzen dituzte eritzi hauek eta beren arbasoak beti Australian bizi izan direla sinesten dute irmoki. Aborigene gazteek, gizakiak Aus-tralia duela 50.000 mila urte koloni-zatu zuenaren aldeko frogak erabil-tzen dituzte beren nagusien puntu bera defendatzeko.

Australiako antzinako fosilak eta egungo aborigeneen DNAk, duela 100.000 mila urte gizakia Afrika eta Ekialde Hurbiletik irtenda munduan nola zabaldu zen argitzeko balio handia izan dezakete. Argudio hau erabilia, arkeologoen Mungoko garezurrak eta antzeko kasuak abori-geneen ondare ez eta gizateria osoarenak direla esaten dute. Gaine-ra, egungo aborigene-populazioekin zuzenki lotutako eskeletoen birlur-peratzearekin ados daudela erantzen dute.

Arazoa ez da erraza eta bi alder-diek arrazoi dute hein batean. Abori-geneek beren arbasoak zaintzeko eskubide osoa dute, eta bestalde, gizateriak badu bere historia deskri-batzen lagun dezakeen guztia azter-zeko eskubidea.

(*) Elhuyar-eko zuzendaria

Euroizarrak

☆ Heldu da kanpaina: bandera-txoak, pankartak, kartel erakarga-riak, irribarre liluragarriak eta aba-rren abarra. Baina hau ez da edozein kanpaina, eurokanpaina da, beestee-tan ikusiko ez ditugun izar distira-tsuez nonahi. Euroizarrak.

☆ Alderdi guztietako jendea jo eta su ari da lanean. Egun hauetan gure alkatearen falta sentitu baduzue, badu zerikusirik eurohauteskondee-kin. Xabier Zubizarreta, fardelak hartu eta Andaluzian barrena ibili da HBren zerrendaren aldeko kanpaina egiten. Bitartean Joxe Mari Usato-rrek egin ditu alkatearenak.

☆ EEkoak ere oso beharginak ari izan dira kanpainaren hastapenetan. Arrasatera Aulestia eta Garaialde etorri ziren, partiduan pisu handiko ordezkariak. Bergaran, bestalde, aspalditxotik martxan zegoen Ezker-tokia inauguratu zuten. Batean zein bestean, antolaketa lanetan, Orobengo anaia nekazekin.

☆ Zain bazaude, zaude lasai, zeren aurtan Jose Antonio Ardantza eta Gloria Urteaga ez bait dira Mondra-goera etorriko bozkatzera. Iaz Feri-xalekuan eman zuten botoa. Aurtan, oster, nahiago izan dute Gasteizen egin.

☆ Kanpaina iraun bitartean, kon-tuz zerutik eroritako opariekin. Oñatin, adibidez, 55 urteko emaku-me bati farola batetik zintzilikatuta zegoen EAko kartela jausi zitzaion saman. Lurrean etzanda gelditu zen gaixoa harik eta ertzainek jaso eta bertako zentrura eramane zuten arte.

ANDERE

**Bainu eta
sukaldeko
ALTZARIAK**

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurrirra egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektrotresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurrirra ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak kon-promezurik gabe.

*Disainu altzarietan trebatuak gara.

Memesa

Arrasate

79 42 22

EA: "Europar ez dira eskandalizatzen independentzia eskatzen"

Astelehenean Aramaioko Zinean, aretoa beterik zegoela, Gorka Knorr, Joseba Azkarraga eta Carlos Garaikoetxea EAkideek mitina eman zuten.

Horrela laburtu zuten Garaikoetxeak EAren datorren hauteskundetarako programa: geure herria eta Europako beste herrien burujabatasuna defendituko ditugu; gure identitatea mantenduz, Europaren batasunaren alde gaude; merkaturak eratzeko antolamendu politikoa ezartzearen beharra ikusten dugu; pake-tsua gara, eta militarismoa eta blokeen politikaren aurkakoak; eta Or-



C. Garaikoetxea, G. Knorr eta J. Azkarraga mintzo ziren

tzadar taldean gaudenez, ekologistak gara; ez dugu inoiz eguneroko problemarik ahazten, gu gara herri-tarren arazoak Estrasburgora erama-

ten ditugunok. Europar ematen ari den prozesua historikotzat jo zuten.

Presoen familiarren autobus erasotua ere aipatua izan zen, Azkarragak inoiz argituko ez den delitua dela adierazi zuten. Garaikoetxeak EA komunikabideetan jasaten ari den tratua ere aipatu zuten: Zergatik EA bezalako indar batek izan behar duen Partido Carlistak, Falange Españolak edo

Ruiz Mateosek duen denbora berdina telebistan? galdetu zuten. Une honetan publikoaren txalorik beroenak jaso zituen.



J. Garaialde, K. Aulestia eta A. Orobengoa

EE: "Europar ekonomia alorrean kokatu behar"

Euskadiko Ezkerra izan da mitinen txanda zabaldu duena Arrasa-

ten. Larunbatean, Monterroneko Kultur Aretoan Kepa Aulestia, Javier Garaialde eta Aitor Orobengoa mintzo ziren.

Aulestiak Europar alde txar eta onak dituela, baina beharrezkoa dela adierazi zuten; ez dago, beraren uste-tan, irtenbide independentierik Euskadirako. Hemendik aurrera arazo handiak konpondu beharko dira dimentsio handietan, eta txikiak, aldiz, txikietan. Europar ekonomia alorrean kokatu behar dugu geure burua.

Euskadiko Ezkerrarentzat, gaur egun abertzaletasuna ulergarria, eta nazionalismo berria behar da. Euskadi gizartetzat, eta ez koartada ideologikotzat hartzen duen nazionalismoa, hain zuzen. Gure nortasunaren bila galdu dugun energia, ekonomia indartzeko birziklatu behar dugu.

Euskadiren etorkizuna ezin da ulertu, orain arte bezala, aldebitako terminotan, Euskadi-Madrid; baizik eta beste autonomiekin batera kokatu behar da; Espainiar estatu osoa birmoldatu beharra dago. Azkenik, Kepa Aulestiak proposatu zuten, datorren hauteskunde europarrei begira, alderdi euskaldun guztien artean proiektu amankomuna egitea.



comercial SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARak ETA NEURRIRA.

DATU-BASEAK

OFIMATIKA

MANTENU-ZERBITZUA

***Ekipamendu eta programak**

***Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 764249. EIBAR

Bi antzerki saio asteburuan

Antzerkizaleok badugu geure zaletasunaz gozatzeko aukera, bi saio eder antzestuko baitira astebukaera honetan.


Ostiralean, gaueko 10etan, eta Zaldibar frontoian "Ni naiz Kapitan Piloto" antzestuko da. Guk gogoratzen dugunez, hau izango da lehenengo aldia Zaldibarren horrelako ekitaldirik egiten dena. Sarrera dohan izango da.

"Ni naiz Kapitan Piloto" Ekekei talde elgoirbartarraren eskutik datorrigu. Zazpi aktorek hartzen dute esku muntaian, eta piratek, galeoi espainarrek, beso bakarreko kontra-maisua etabar.eko elementuek osatzen dute obra. Itsas-giroko saioa dugu, beraz. "Ekekei" taldea "Taufada" taldearen barruan iaz izandako zatiketarik sortu da.



"La señorita Julia" obraren antzezleak

Larunbatean, 10,30etan, eta Amaya antzokian, Orain taldearen "La señorita Julia" antzestuko da. Obra hau August Strindberg-ena da, eta akzioa konte baten sukaldean garatzen da. Bertan izango da tragedia: San Juan gauean kontearen emazteak morroi bat xarmatzen du; hurrengo egunean, bihotz zimikoak jasan ezinean, bere burua hiltzen du. Muntai honetan, Maribel Belastegiren zuzendaritzapean, hiru aktorek hartzen dute parte.



Aldaiko Kanposantua txiki geratu da

Kanposantu berria aurten hasi nahi

Aldaiko kanposantua ase dagoenez, eta handitzeko posibilitaterik ez dagoela ikusita, aurtengo aurrekontu-tan 50 milioiko kontusaila dago kanposantu berria eraikitzeko. Hau San Cristobal-Altamiran kokatuko da, eta aurten bertan obraren lehen fasea hasiko da. Berria egiten ez den bitartean, Aldaikoan nitxo eta hezurtegi berriak egiteko bi milioiko kontusaila dago.

laburrak

■ Lan-istripua

Astelehenean, M.P.V., 25 urteko arrasatearrak istripua izan zuen "Ederlan"en. Bere gainean tonelada bateko pisuko hainbat kaja jausi zitzaion bere gainean; ondorioz, sabelaldeko traumatismoa sufritu zuen. "Gurutze Gorriak", egoera larrian, Gasteizko Santiago Ospitale-
ra eraman zuen.

■ Amuarrainak

Deba Garaiko "Heiza eta Arrantza Taldea" k jakinarazten du ingurueta-ko erreka amuarrainez birpopulatu direla, azkenengo ekaitz eta ondamen ekologikoek erreka hutsik laga bait zituzten. Birpopulazioa Foru Aldundiaren laguntzaz egin da. Talde honek, bestalde, eskatu dio Foru Aldundiari zerbait egin dezala Santa Agedako Ospitaleak hondamen ekologiko gehiago ez sor ez dezan.

JAIOTZAK

Montanio Redal *Blanca*.

Maiatzaren 18an.

Etxenausia Sagarta *Mikel*

Maiatzaren 22an

Ruiz Kortabarría *Eneko*

Maiatzaren 25ean

Bolinaga Bragado *Maialen*

Maiatzaren 18an

EZKONTZAK

Alberto Etxagibel Galdos &

Lia Altuna Elorza

Maiatzaren 25ean. Elizaz.

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**



Inaugurazioan hainbat personalitate izan zen


Soziologia Juridikoaren Institutua Oñatin

Joan den astean inauguratu zen Oñatiko Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutua. Honen aktibitateak, A. G. Arnaud-en zuzendaritzapean, bi urtez luzatuko dira,

Santa Agedako "Aita Meni" Ospitalea, jaietan

Joan den Maiatzaren 22tik datorren Ekainaren 4 arte, Santa Agedako emakumezkoen "Aita Meni" Ospitalea bere jaiak ospatzen ari da. "Aita Meni"n, momentu honetan 500 gaixo daude, bere kapazidade osoa, alegia; eta instalazio modernoak ditu.

Programan ekitaldi ugari daude: pelikulak, jokuak, txapelketak, pailazoen aktuzioa, dantzaldia, argazki zaharren eta marrazkien erakusketa, etab.(ikus agendan). Ospitalearen instalazioetan tonbola, apaintze-tokia, txoznak eta hainbat joku ezarri dira egun hauetarako. Gaixo ugari hartzen dute parte ekitaldietan, zentzu handiagoa emateko batzuk ordainduta dire-



Gaixo batzuk tonbolan jolasten

bertan lurralde ezberdinetako ikertzaileak bilduko direlarik. Soziologia Juridikoa Gizarte eta Zuzenbidearen arteko erlazioak aztertzen dituen zientzia dugu.

Bi urte hauetan bederatzi mintegi izango dira. Horretarako, Oñatiko XVI. mendeko unibertsitatean hitzaldi eta dokumentazio-aretoak eta 36.000 aleko liburutegi berezitua egokitu dira. Hiru ziotatek aurkeztu zituzten euren kandidaturak institutua antolatzeko: Paris-ek, Pueblak eta Oñatik.

Inaugurazioan katedratiko ospetsuak, J. Van Houtte eta A. Gean Arnaud bezala, J. Antonio Ardantza eta beste agintari batzuk izan ziren.

larik. Jai hauen ideia Errehabilitazio- Zerbitzuarena da, eta helburua aisialdirako alternatibak ematea eta euren artean harremanetan jartzea da. "Aita Meni"k zabalik dauzka bere atea egun hauetan nahi dutentzat.

Urrian, bestalde, 40 gaixo 15 egunetarako Canariasetara joango dira.

Haur dantzarien eguna

Datorren Ekainaren 18an "Haur dantzarien eguna" ospatuko denez, astebetetz luzatu da familiek euren etxeetan haurrak gonbidatzeko eskatzeko epea. Beraz, Ekainaren 6 arte bete daitezke Hiren eta Ikastoletan gonbite-eskaerak. Antolatzaileek 440 dantzari ekartzeko asmoa dute, eta oraingoz bakarrik 98 familia agertu dira prest dantzariak euren etxeetara gonbidatzeko. Anima zaitenez eta lagundu zuk ere!

UEUra joateko dirulaguntzak

Datorren Uztailean UEUra joango diren arrasatearrei dirulaguntzak emango dizkie Udalak. Izan ere, joan den Apirilaren 17an Gobernu-Batzordeak, Euskara Batzordearen proposamenez UEUri 26.000 pta.ko dirulaguntza ematea erabaki zuen bai eta UEUra doazen arrasatearrei ordaingiria aurkeztu beharko da Udaletxeko Euskara Zerbitzuan.

Isurketa kutsagarriak

Ulgor, Lana, Arrasate, Amat eta Santa Agedako Ospitaleak eginiko isurketa kutsagarriak direla eta, Udalaren aldetik jasotako salaketari buruz, Kooperatibetako Langileen Asanbladak eta Euskadiko Komite Antinuklear eta Ekologistak zera esaten dute: ondo ikusten dutela salatzea, baina hau ez dela nahikoa, eta Udalak zigor ekonomikoak ezarri beharko lizkiekeela. Izan ere, hainbat enpresari merkeagoa urteten zaie zigor hauek ordaintzea depurazio-sistemak jartzea baino. Hau dela eta, zera exigitzen dute: isurketei buruzko informazioa, isurketa hauek gehiago ez gertatzeko enpresek neurriak ipintzea eta Udalak delitu ekologikoaren figura aplikatzea.

ARTOR

**P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

Larunbatero **Monte-rronen**, ume zein nagusientzat **pintura-ikastaroa** dago. Artista talde honen asmoa pintzelekin duten trebetasuna hobetzea da; honetarako, Imanol eta Miren-en, Arte Ederretako azken urtetako ikasleak biak, laguntza ezin hobea dute.



Eider eta Nerea


izen propioak

M^a Asun Arana, 33, bedofiarra, beste hamaika lagunekin batera, ustez ETA kideak, Algeliako gobernua Venezuelara bidali du. Laster hamabost urte beteko dira Asun Iparraldera joan zenetik. Lehenago, Oñatiko ETEOn ikasi ondoren, Lan Kide Aurrezkian ari izan zen lanean. Algerian iazko Urritik zegoen.

Enrike Pagoaga, 34, Aranguren baserriko semea, M^a Asunen hegazkin berean jarri zuten, Venezuelarako bidean. Aurretiaz hiru urte inguru egin zituen Venezuelan. ETAKidea izatearen akusaziopean. Gartzelan urtebete egon eta gero, 1978an hanka egin zuen Iparraldera, 1979an Karibeko herrira joan zelarik. Algerian bigarren urtea bete behar zuen. Errefuxiatu aurretik Enrikek UCEM-en egin zuen lan, zerrailari gisa.

Jesus Etxezarreta, 43, zurgin oñatiarrak Gorpuzti egunean Oñatiko prosezioan erakusteko hamalau-garren eskultura egin du, Aozaratzako S. Migelen irudia, hain zuzen. Orain arte hamahiru irudi erakusten baziren ere, aurrerantzean haritzegindako horrek ere izango du bere lekua. Jesusek Egurlan enpresan egiten du lan

Jose Mari Arregi, "Fitipaldi", 43, oñatiarra. Frantziako agintari judizialen arabera, lehergailuak egiteko ETAK duen espezialistarik handiena. Haien eta Espainiako polizi iturrien ustez, Hipercorren eta Zaragozako koartalean jarritako bonben egilea izango litzateke. Jose Mari "Cabra"ren taldekidea izan omen zen. 1976an Iparraldera joan zen.



J. R. Beitia kantatzen

batzuk bota zizkiguten. Hain areto handirako, jende gutxi bildu arren, jaialdia bikaina izan genuen.

Deba Garaiko bertsolaririk onenak bildu ziren lehen egunean Amaya antzokian: Jon eta Aitor Sarasua, Jon Iñaki Izarzelai, Arantzazu Loidi, Angel San Miguel eta Joxe Ramon Beitia. Gai jartzailearena egiten Kepa Urain ibili zen; eta, aukera galdu ez nahian, berak ere bertso eder gutxi bildu arren,

Joseba García "Berango" mondragoetarra, eta **Ana Errasti** aramaioarra, Maiatzaren 13an ezkondu ziren Azkoagako elizan. Bikotea Mexicora egin dute eztei-bidaia, eta Arrasaten bizitzeko asmoa dute. Joseba gure aldizkariko kolaboratzaile fin baten lehengusua dugu.

IOSU



LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

Euskararen aldeko urrats berria ULGORen

Euskararen normalizazioak, gure eguneroko eginbehar eta joan etorrietan euskara askatasun osoz eta inolako eragozpenik gabe hitz egin dezakegula esan nahi du, besteak beste. Baina euskara gure harreman guztietan inolako trabarik gabe hitz egiteko aukera izan dezagun gizartearen esparru ugari euskaldundu behar dira oraindik, hauetako bat lan mundua dugularik.

Apiriletik hona Fagor taldeko hiru kooperatibatako zenbait langilek euskara ikasten dihardu ULGOR, kooperatibaren inizatiba baten ondorioz.



Garagartzeko ULGOReko planta

Aspaldiko erabakia

1980an ULGOR kooperatibako Kontseilu Errektoreak, jendearekin harremanak izan behar zituzten lanpostuak betetzen zituen jendea, bost urteko epe batean euskaldundu behar zuela erabaki zuen eta horrerarako kooperatibak, beharrezko neurri eta baliabideak jarriko zituen. Baina garaia ere, ez zen gauza haue-tarako aproposena, krisiak gogor erasotzen zuen eta Fagor taldeko enpresak, beste guztiak bezalaxe, ez ziren mamu honetaz libro. Beraz, krisiari aurre egin behar ziola eta errekonbertsioa burutzen ari zirela, euskara bigarren mailako arazo bihurtu zen eta hartutako erabakia ez zen bete.

1987an AED elkarteak Euskalan kanpaina jarri zuen martxan, lantegian euskararen egoera salatu eta

hobetzeko asmotan. Kanpaina honen barnean, Ulgor kooperatiba barruan firma-bilketa kanpaina bat burutu zen; Ulgorrek berak, harturik zituen erabakiak bete ez zirela sala-

tuz. Bildutako firmak, ULGOR-eko Kontseilu Sozial eta Errektoreari aurkeztu zitzaizkion eta ondorioz, lantegian euskararen egoeraren berri izateko, txosten bat burutzea pentsatu zen.

Txosten hau burutzeko ULGOR-eko langileei galdetegi bat banatu zitzaizen euskara zekiten ala ez jaki-

teko, aldi berean ez zekitenei euskara ikasteko prest zeuden galdetzen zitzaielarik.

Txostenaren emaitzak nahiko kezkarriak suertatu ziren, lantegian euskarak zuen egoera 1980an baino txarragoa zela azaltzen bait zen. Nolanahi ere, jendearekin harremana izan behar zuten lanpostuak betetzen zituzten pertsonen %70a prest zegoela euskara ikasteko, beti ere era intentsiboki ikasiz gero.

Lanpostu hauek euskalduntzeko plana

Jasotako txostenaren emaitzak zein kezkarriak ziren ikustean, lanpostu zehatz batzuk euskalduntzeko plan piloto bat martxan jartzea erabaki zen. Plan piloto honen arabera, lantegian jendearekin harremana duten lanpostuak betetzen dituzten 24 pertsonak hasi behar zuen euskara ikasten intentsiboki, hau da, egunean lau orduz. Planaren arabera euskara ikasiko zuten pertsona hauek, borondatez ikasiko zuten euskara eta gehienez urtebetez arituko ziren euskara ikasten.

Baina sarritan dena ez da uste bezain erraza gertatzen eta hasieran euskara ikasteko Ulgor-eko 24 pertsona liberatzeko asmoa bazegoen, asko berziklatze-ikastaroetan dagoelako, beste batzuk ingeles edo frantsesa ikasten ari direlako eta beste askotan beren buruek liberatu nahi ez dituztelako, ikasle kopurua

Ulgorren, gaur egun euskararen egoera 1980an baino larriagoa da, bertan egian duten ikerketa baten emaitzek argitu dutenez.

gutxitu egin da. Horrez gain, beste kooperatiba batzuetako langileak ere sartu dira plan honetan, Fagor-Clima eta Fagorreko Bulego Nagusietako langileak, hain zuzen ere.

16 pertsona euskara ikasten

Une honetan Fagor-eko langile hauek Arrasateko Udal Euskaltegian

ari dira euskara ikasten, arratsaldeko ordubietatik seirak arte. Plana burutu zenean, Ulgorrekoak Arrasateko bi euskaltegietara zuzendu ziren, baina Udal euskaltegian jaso zuten eskaintza Erdu euskaltegikoa baino merkeagoa zela eta, ikastaroak bertan burutzea pentsatu zuten. Beraz, une honetan 16 ikasle dituzte bi taldeetan banatuak, batzuk zero mailan sartu zirenak eta besteak, zertxobait bazekitenak. Udal euskaltegiko arduraduna den Natirekin hitz egin ahal izan dugu eta bere hitzetan "niretzat plan hau oso garrantzitsua da, batetik ikasle guztiak borondatez etorri direlako, hau da, ez dute beren lanpostua galduko euskara ikasi ez arren; eta bestetik, Ulgorrekoek oso plan serio eta sakona burutu dute, euskara zein lanpostutan eta zein mailatan behar den ikusirik". Ikasle hauek, azterketa bat egin behar izan zuten beren maila zein zen jakiteko. Ikastaroen helburua, batez ere, mintzamina eta ulermena lantzea dira, pertsona hauek beste batzuekin hitz egiteko behar bait dute euskara.

Ikasleen aurrerapena zein nolakoa den, Ulgorrek jakin dezan, ikastaroei buruzko txosten bat eman behar zaio 100 ordutik behin eta honetaz aparte,

Talde hauek euskara ikasketak bukatzen dituztenean, beste talde batzuk sartuko dira plan honetan. Plan honetan sartu ahal izateko langileak, lanpostuan jendearekin harremanak izan behar ditu

astero astero klaseak ematen dituzten bi irakasleak, euskaltegiko zuzendariak eta HABEko ikuskatzaile batek astero bilerak egiten dituzte klaseak zemolako martxa duten jakitearren. "Ez dugu ezer txarto atera dadin nahi, -azaltzen digu Natic- hau hasiera baino ez da eta". Ulgorrek berak eskaintzen dituen beste ikastaroetan ematen den kontrola hauetan bezain

estua den jakin nahi izan dugu, eta ULGORReko formazio komiteko kide batek baietz esan digu, ingeleseko ikastaroetan hauetan bezain kontrol zehatza ematen dela argituz.

eta klaseetan gustora aurkitzen direla azaldu digute, klaseak eurak uste baino askoz ere arinagoak direla gehituz.

Talde hauek euskara ikasketak amaitzen dituztenean, kasurik luze-



Karmele eta Junkal, taldeen irakasleak.

Irakasleak harriturik

Fagor-eko langile hauei klaseak ematen dieten Karmele eta Junkalekin egon ahal izan gara eta

nean datorren Apirilean, nahiz eta talde batek lehenago bukatu, beste talde batzuk hasiko dira euskara ikasten, Ulgorren euskara ikasi nahi duten guztiek euskara ikasi arte. Beti ere kontutan izanik, euskara ikasi nahi duen langile horrek ikastaro hauetan parte hartu ahal izako bere lanpostuan jendearekin harremanak izatea eskatuko zaiola. Beraz, lantegiko edozein langilek ezin izango du euskara ikasi lantegiak ordainduta.

Nolanahi ere, aurrerapausu garrantzitsua dela esango dugu eta dagoeneko beste zenbait kooperatiba proiektu honetaz beren ardura erakutsi dute, beren langileak euskalduntzeko bidea aurkitu nahian. Beraz aurrerapausu xume baina garrantzitsu baten aurrean aurkitzen gara baldin eta geroa izaten badu.

harriturik azaltzen ziren "beste talde batzuekin gonbaratuz gero, ikasle hauek duten puntualitatea eta klaseetan eskaintzen duten harreta ikaragarriak dira, euskara ikasteko gogoia ikusten zaie, eta martxa honetan urtebetean ikasiko dutela uste dugu, orain arteko helburuak bete ditugu eta". Ikasleekin ere hitz egin ahal izan dugu



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak


BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

UDA 89 BARNETEGIA

ARRASATE
ARETXABALETA
BERGARA
UDAL



EUSKALTEGIAK

Non: Frai-Soron (Zizurkil)
Zabalegin (Hernani)

Noiz: Uztailak 3tik 21era
(Asteburuak etxean)


6 eskolaordu egunero
4., 5., 6., 7., 8. urratsak

MATRIKULALDIA: Ekainaren 15era arte

PREZIOA: 22.500 pta.

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA	79 70 77
ARETXABALETAKO UDAL EUSKALTEGIA	79 21 68
BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA	76 44 53

POSTGRADUATUENTZAKO BEKAK



ENPRESA-IHARDUERA BERRIEN BULTZATZAILEEN PRESTAKUNTZARAKO ZENTRUA

Beka programaren edukia:

*Teknika-Enpresa alor guztietan, prestakuntza

* Bere osotasunean, enpresa berri baten prestakuntza

**ZIENTZI, INJINERUTZA, EKONOMI ETA ENPRESETAKO
POSTGRADUENTZAKO DEIALDI IREKIA**

Bekaren zenbatekoa: 1.000.000 pta.

Deialdia itxiko da: 1989ko Ekainaren 27an

Interesatuak helbide honetara idatzi:

Armin Isasti

Zentruko Zuzendaria

-23 apartatua- 20.500 ARRASATE

Kurrikuluma erantsi, zeure asmoak azalduz

Zentru Bultzatzailea: ESKOLA POLITEKNIKOA. ARRASATE

J. M. Astigarraga: "Sinismen krisia ez dute gure gazteek, krisia gurasoengan dago"

Jose Mari Astigarraga dugu Arrasateko parrokoa duela bost urtetik hona, izatez Elgoibatarra. Hona etorri baino lehen Errenterian 18 urtez apaiz lanak egiten egona da. Herriko sektore garrantzitsu bati bere zerbitzuak eskaintzen dionez, berarekin hitz egin nahi izan dugu herriko zenbait arazoz eta eleizaren egoeraz bere ikuspuntua eman diezagun.

— Arrasate Press: Arrasatera orain dela bost urte etorri zinen, zer moduz aurkitzen zara gure artean?

— Jose Mari: Niri herriak egin didan harrera oso hona izan da, elizkoia ez den jendearen artean ere. Oso gustora aurkitzen naiz bertan. Dena dela, esan behar dut, nire eritziz, Arrasaten integratzea oso zaila dela, bai erdaldunentzat eta bai beste herri batzuetako euskaldunentzat. Maila horretan Arrasatek badu primitibismo tantto bat. Hala ere, integratzen zaituenean oso osorik integratzen zaitu.

— Arrasaten zaudenetik, zein izan da Arrasateko elizan aurkitu dugun arazorik nagusiena?

— Eleizan hutsune bat dago, politikan gertatu den bezalaxe. Franchok belaunaldi osoa indargabetu zuen politikarako eta eliza barruan ere belaunaldi hori falta zaigu. Herriak ez du serio hartzu elizak behar duen aldaketa. Eliza inguruan, sentipenez eta bihotzez emanak dauden pertsonak ditugu, baina kultura erlijioso gabekoak. Normalean pertsona hauek edadekoak izaten dira. Gazteek bere kristau izateko era eta eleiza izateko era, birplanteatu behar dute, eta ez dute aurkitzen erreferentzi eredurik hori egiterakoan. Erreflexio hori egina eta bideratua duten pertsonak falta zaizkio gazteari, 30-55 urte bitarteko jendea. Nire eritziz, sinismen krisia ez dute gure gazteek, askok fede hori aurkitu ere ez du egin eta, krisia gurasoengan dago. Ez dugu elizaren berrikuntza bameratu.

Ni heldu nintzenean, oso harritu nintzen Arrasateko gazte kristauen mugimenduak oso gutxi landuak

aurkitu nituenean, monitore landuak ez zituztela, etab. Une honetan, gure lana jendea kalitatez monitore izateko eta talde baten arduradun izateko hezitzea da, borondatea izateaz gain, erlijio gaietan ikasiak eta diren monitoreak. Hildo horri segituz sortu dugu Azatzako monitore-eskola.


— Elizaren berrikuntza aipatu diguzu, zein da elizaren berrikuntza hori?

— Beno konzilietatik hona elizan eman den aldaketa aztertu beharko litzateke, baina elizan gero eta gehiago sentituko gara elizar, Jesusen edo kristautasunaren opzio pertsonala egin dugunok. Ez herriaren presioagatik kristauak, gure bilaketaren ondorioz opzio pertsonala egin dugunok baizik. Era honetan, eliza ez da izango zerbitzuak (meza dotoreak, hiletak, koroak, etab) eskaintzen dituen instituzioa, elkarte bat baino. Konpromezu hori hartu duen kristauak elkartearen parte sentituko du bere burua, arduradun eta eragile elkarte horren barruan.

Lehen eliza instituzioa zen, denek onartzen zutena, giroak horretara bultzatzen zuelako. Izugarriko boterea zuen herri eta instituzioetan.

Gaur egun ez da horrela ulertzen. Kristauak kristoren mezuan sakontzen joan behar du eta benekotasun baten bizitzen saiatu.

Horretarako kultura erlijioso handiagoa behar du. Gure herria orokorrean erlijio gaietan analfabetoa da, erlijioa sentipenez bizi izan du, baina landu gabe. Elizan pertsonak egin behar dira eta ez ume obedienteak. Eliza horrela ulerturik apaizak gero eta botere gutxiago izango du, eliza elkarte bat izango da eta elkarte



Jose Mari Astigarraga

horren barruan apaizak eginkizun bat izango du, baina elkarte izango da gauzak erabakiko dituen, sekularrek bere tokia izango dutelarik. Ni etorri nitzenerako Arrasaten aurreko parrokoak, junta parrokiala egina zuen. Bertan eleizaren mugimendu guztiak daude ordeztuak.


— Eleizan aurkitu zenuen arazorik nagusiena aipatu diguzu, baina herria orokorki hartuta zein da zure eritziz arrasatearrok dugun arazorik nagusiena?

— Nire eritziz arrasaten gazteria tekniko eta ekonomikoa ari da sortzen, bai politikan, bai sinismenean, bai herrigintzan edota beste giza arlo batzuetan pasota bihurtzen ari dena. Hori hor dagoela uste dut eta larria da oso. Horren ondorioz, Arrasateko gazteriarri behar bada kostako zaio bizitzari zentzua aurkitzea.

— Hori larria dela esan diguzu, zergatik?

— Nik gazteriarri askoz ere askatasun gehiago eskatuko nioke, askatasun hitza bi edo hiru gauzetarako erabiltzen dugu, baina beste arlo ugaritan mirabetuak aurkitzen gara. Zein gauza atsegin dugun, zer egin nahi dugun, nola bizi, etab. erabakitzeko nortasunik gabe. Gaurko gazteriarren helburuak oso itxiak somatzen ditut. Dena dela, ezin da gazteriaz orokorrean hitz egin, inoiz baino talde desberdinagoak aurkituko ditugulako, baina gazteria zabal bat, gauzak kritikatzeko dakiena, ontzat hartzen diren gauzak mahairatzen dakiena, herrigintzara zabalitzen dena, ez dut aurkitzen.

"Gaurko gazteriarren helburuak oso itxiak somatzen ditut"



Aste honetan bertan hasi dira obrak

Atxabalpen 500 jarlekuetako tribuna egiten ari

Aste honetan, etxean jokaturako azken partiduarekin bat etorri, hasi dira Atxabalpen tribuna ezartzeko obrak. 17 milioiko aurrekontuaz, 504 lagun eserita egoteko kabida izango du. Bestela kabituko ez litzatekenez, gradak futbol-zelaiari 120 zm. jan beharko dizkio. Plastinox enpresak daramatza obrak, eta uztailaren amaierako bukatua egotea espero da. Datorren urtean, beraz, futbol-zaleok erosoago egoteko aukera dugu Atxabalpeko zelai ederrean.

Harritu gara, bestalde, denboraldi amaieran Atxabalpeko belarraren egoera ikustean. Zoragarria benetan.

Bi futbolista kirolfanora

Bi dira, azken egun hauetan kirolfanotik pasa diren futbolari arrasatearrak. Beno, arrasatear bat eta kamiseta zuri-morea janzten duen eskoitzar bat. Joxean Diaz de Gereñu joan den ostiralean, hilak 26, Donostiako El Pilarren belauneko lesio bateaz operatu zuten. Medikuen esanetan, operazioa arrakastatsua izan zen.


Eta Sanseko aurrelari arrasatear den Jon Igoa asteartean pubiseko osteopatiatz operatu zuten, Barcelonan oraingo honetan. Kasu honetan ere, interbenzioa harrakastatsua izan omen zen. Ea aguro itzultzen diren biak zelaietara.

Kote Eibarretik bota

Lopez Rekarte, "Kote" Eibarretik bota dute. Antza denez, problema batzuk izan zituen entrenatzailearekin joan den asteko entrenamendu batean eta, ostiralean, hilak 26an, Zuzendaritzak ekipotik botatzea erabaki zuen. Txosa Eibarrera lagata pasatu zenean, bazituen arazo batzuk Zuzendaritzarekin, honek Mondrara itzultzeko posibilitatea planteatu bait zion.

Judo

Larunbatean Kiroldégiko judo-aretoan judo-lehiaketa izango da Gipuzkoako 10 talderen partaidetzarekin. Guztira, 35 - 70 bitarteko kilotako 90en bat judokarrek hartuko dute parte. 10,30etan 3 - 9 urte bitarteko umeek entrenamendua izango dute eta, urtebete beranduago lehiaketa hasiko da. Arrasatearren artean, aipatu Oskar del Monte-ren partaidetza, orain dela gutxi Nazioarteko txapelketa batean hirugarren suertatuko.




SOKOA

Zeharkale estalia

Arrasate

Gorka

ILEAPAINDEGI MIXTOA



Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327

ARETXABALETAKO

I R A T I

Ferrerias kalea

Tfnoa: 79 71 80



Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

IBARRA Garajea S.A



garajea
Automobil-
konponketa
Garabi zerbitzua

EBRO

NISSAN

Azeri kalea, 5 Tfnoa: 79 12 61
ARRASATE

podiuma

Ramon Jausoro, iraupen-lasterkariaren bakardadea

2 ordu eta 22 minutuko denboraz garaile suertatu da Jausoro joan den igandeko Bilboko Maratoiaren X. edizioan. Marka honetaz probaren errekorra hautsi du (2.22:02, 1984etik), atletismoaren elitean sartuz.

Horrela kontatu dizkigu lasterketaren gorabeherak, "10. km.an Zuloaga, Alfaro eta hirurok jarri ginen lasterketaren buruan. Zuloaga aurrerago erretiratu egin zen, eta Alfaro eta biok akordio batera heldu ginen: batera jarraitzea elkarri lagunduz. Eta 35. km.an tiroia eman nuen, helmuga bakarrik zeharkatuz". Hainbat egunkarik, X. edizio honetan probaren errekorra lortzeko, ibilbidea leundu egin dutela diote; Jausoro ez dago oso ados honekin, "nik lehen ez dakit zelan zegoen, lehenengo aldiz korritu baitut proba hau; entzun dudanez, asko ez dute aldatu. Rekta luzeak daude, eta hau bururako oso gogorra da, sikologikoki oso prestu egon behar duzu. Maratoia, batez ere, azken kilometrotan, sikologikoa da, gorputza deshidratatu egiten denean, sufrimendutik atera behar dituzu indarrak."

Hau Jausororen hirugarren maratoia besterik ez da eta; esaten diotenez, bere ezaugarri gehien egokitzen den proba da. "Izan ere, ni gustokoago dauzkat 5.000 eta 10.000ko probak. Gutxiago sufritzen duzu". Dena dela, denetarik egiten du, denboraldia horrela prestatzen duelarik, "lehenengo Donostian Urrian izaten den maratoirako prestatzen naiz. Neguan,



"Lasterketa luzeen korrokalariak beti bakarrik entrenatu behar"

krosserako. Orain, aste betez edo, atsedendaldi aktiboa izango dut; hau da, entrenatu, baina bakarrik 20ren bat minutu egunero (normalean egunero bi ordu ematen ditu); eta gero, pistarako gertaketan hasiko naiz". Iraupen-lasterkariak, bakarrik entrenatzen dute; Almen-eko atleta hau, normalean, Urkulu edo Aramaiorako bidera joaten da. Bere entrenatzailea Azkargorta dugu; eta astean behin Gasteizera, Sabino Padillarengana, joaten da. Babestailatzat "Arrasate Kirolak" du.

Diruari dagokionean, zera esan digu: "orain arte ez dut atera dirurik, bakarrik sufritu egin dut. Proba hau irabazteagatik, bai, 350.000 pta. jaso ditut: 150.000 lehen postuagatik; beste 150.000 errekorragatik eta 50.000 Euskadiko txapel-dun izateagatik. Hemendik aurrera dirua eskatzen has naiteke hainbat probetan". Ramon Fundizio batean dabil lanean, eta ea inoiz planteatu duen profesionala izatea galdetzen diogu, "beste lanik eukita, oso zaila da, profesionaltasunak egun osoko dedikazioa eskatzen baitu; gainera, laguntzarik ez dago".

Gay

José Antonio Gay ia astero albistegai da. Salamancako Unibertsitate-Txapelketan 21,74eko marka lortu zuen 200 m.koetan. Arrasateko errekor berria ezartzeaz gain, Europako Txapelketa juniorretan parte hartzeko minimotik segunduko hamarren batera gelditu da.

Eskubaloia: Arrasate txapel-dunordea

Arrasate Kirolak 2. suertatu da gazte mailako Gipuzkoako Kopan. Finala 15-11 galdu zuten Bidebietaren kontra, arbitroaren "laguntzaz". Honako hauek jolastu zuten: Iban eta Xabier; Unai (1), Raúl, Gaizka, Román (3); Oskar (1); Gorka Lasa (5); Josu, Andoni, Jon Ander (1) eta Joseba Lasa.


KIROLAGENDA

- **atletismo: larunbatean**, Donostian, Euskadiko Txapelketa taldezka, Arrasate A. T. partaidetzaz; XI. kross popularra iraila arte aplazatu da.
- **judo: larunbatean**, Kiroldegiko yudo-aretoan, 10,30etan: umeen entrenamendua; 11,30etan: herrien arteko txapelketa.
- **futbola: larunbatean**, Setan, Alonsotegin: Larramendi-Mondra (azken partidua).
- **pilota: larunbatean**, Bergaran, 4,30etan: Irazola eta Andueza VI-Gabilondo eta Urria.

Denborapasen soluzioak

Nahaste-borraste

- 1) Baloia.
- 2) Zestoa. LIZARDI
- 3) Ikatza.
- 4) Mardul.



REGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI

Jatetxea


Eguneko menua

eta

karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

Informatika birusak jota




Gaur egungo gizarteak eta teknikak izan duten bilakaeraren adibideak ugari dira, baina bat aipatzeko-tan ordenadoreak aipa ditzakegu. Hauen bidez lan ugari erraztu eta sinplifikatu egin dira eta lehen ordu ugari behar izaten zituzten lanak gaur egun denbora oso laburrean buka daitezke. Baina ordenadoreek ere badute beren etsaiak. Batzuk gizartearen informatizazioak giza-kiarengan dagoen gero eta kontrol handiagoa ekarri duela salatuko dute, baina gaur hemen ez gara honetaz arituko, ordenadoreek, makinek, duten etsairik larrienez arituko gara, birusak, hain zuzen ere.

Birus hauek norbaitek apropos sortutako ordenadore-programak ditugu. Programa hauek beste programa batzuen barruan sartzen dira eta berauen funtzionamendu egokia galerazten dute. Beren ezaugarri garrantzitsuenetako bat oso kutsakorrak izatea da eta askotan beren presentzia nabaritzea ez da batere erraza izaten. Beraz, neurri handi batean, gizakiok erasotzen gaituzten birusekin pareka daitezke, berauek ere oso kutsakorrak izaten bait dira. Birus batek kutsatutako programa bat beste ordenadore batean erabiltzean, ordenadore horren disko gogorreko programak birus horrek kutsatuzeko arrisku bizia dute. Birusak era askotakoak izan daitezke, eta ordenadorearen programak modu askotan eraso ditzakete, baina arrisksuenak artxiboen tamaina aldatzen dutenak, edo eta diskoetan gorderik dagoen informazioa ezabatzten dutenak ditugu. Esan behar da Arrasate Press-eko ordenadoreak

ere kutsaturik izan ditugula eta askotan aldizkaria garaiz kaleratuko ez zenaren beldur izan gara, ordenadoreek guk emandako aginduak ez bait zituzten betetzen.

Pasa den astean egunkarietan "Israel" edo "Ostiralak 13" izenaz ezagutzen den birusaren antidotoa aurkitu dutela irakurri ahal izan dugu. Birus hau oso arrisksua dugu eta bi eratan erasotzen ditu programak. Batetik, behin programan sartu ondoren, disko gogorrean gordetako fitxeroen tamainak aldatzen ditu eta bestetik, ordenadorea edozein hiletako 13an piztuz gero, beronen memorian gordetako informazio guztia ezabatzen du. Antidoto hau Espainiako Informatika Enpresen Elkarteak dohainik banatuko du. Elkarteok antidotoa dohainik banatzearen arrazoia, informatikan ematen den sabotaiaren aurka lan egitea izan dela azaldu dute eta sabotaiaren azalpen adierazgarrietakoa birusak ditugu.



AHIZKE-CIM Koop. E.

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

*Alemana
Frantsesa
Ingelesa
Italianoa*

ITZULPENAK

INTERPRETARIAK

*Bisitak
Hitzaldiak
Katalogoak
Foileto teknikoak
Telex-a, eskutitzak
eta txostenak*

**FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO
ZENTRUAK**

INFORMAZIOA: 3,30etatik 7etara

Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59

**ARRASATE
PRESS**

Astero zuekin

**KABINETE
MEDIKOA**

**Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analiak**

**Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08**

Ezintasunaren mingotsa

A HOUSE On our big fat Merry.....	1675	MARC & THE MAMBAS Torment (2 L.P.S.).....	2175
ALEX CHILTON Like flies on Sherbert.....	1575	Unlimited (2 L.P.S.).....	2175
ARTHUR KAY Rare nasty (S.K.A.).....	1275	MCLYTE Live as Rock.....	1675
BEATHS Beatings.....	1575	MC SMAN Born to be wild.....	1675
BIG BLACK Songs about Fuckin.....	1575	MICHAEL NYMAN Drowning by numbers.....	1675
BIG DADDY KANE Long live the Kane.....	1675	MIGHTY LEMON DROPS World.....	1675
BILLY BRAGG Back to basics.....	1875	MIRACLE WORKERS Live at the forum.....	1675
1 + 2 (L.P.S.).....	1875	NEW MODEL ARMY Radio Sessions 83-84.....	1375
BIM SKALA BIM Boston blue beat (Ska).....	1375	NEW YORK CITIZENS Pounding (S.K.A.).....	1375
BIRTHDAY PARTY Junkyard.....	1575	NEW YORK DOLLS 1 + 2 (L.P.S.).....	1875
Prayers of fire.....	1575	Red Patent Leather.....	1575
Peel Session II (MX).....	1175	NICK CAVE Your funeral may be.....	1575
BOILERS Rockin' steady (S.K.A.).....	1375	Mercy Seat (MX).....	1175
BOOGIE DOWN PRODUCTIONS By all means.....	1675	NIPS 'N NIPPLE ERECTORS.....	1375
BRILLIANT CORNERS Somebody up.....	1575	(PUGLES) Sops Babes.....	1375
BUTTHOLE SURFERS Highway to Steven.....	1575	O'KAMES Tired of the Runnin.....	1675
Locus abortion.....	1575	ORANGE JUICE Rip it Up.....	1575
BUZZCOCKS Another music.....	1275	You Cant Hide.....	1575
A different kind.....	1275	ORNETTE COLEMAN Virgin beauty.....	1675
CHESTERFIELD'S Cigarette tears.....	1575	PIESES Come on pilgrim.....	1275
CHRIS AND COSEY Heartbeat.....	1575	POTATO 5 True Fact (S.K.A.).....	1575
CHRISTIAN DEATH Scriptures.....	1675	POWER TOOLS Strange Meeting.....	1575
CHURCH Conception.....	1675	PREFAB SPROUT Swoon.....	1275
CLAN OF XYMOX Clan of Xymox.....	1575	RAMONES 1 + 2.....	1575
Medusa.....	1575	Road to Run.....	1275

Joan den astean, "Rolling Stone" musika-aldizkari famatuaren 20. urteurrean prestatutako saio berezia eman zuen Espainiako telebistak. Saio horretan, azken 20 urteotan rokanrolari berrikuspen arina eman zioten, zenbait protagonistaren iriztiak tartekatuz. Saioa interesgarria izan zen eta musikaren une historiko batzuen berrikustea oso gustagarria. Beste zenbait punturen artean, musikaren industriari azken urteotan izan duen hazkunde izugarria aipatu

zen saioan. Egia da 60. eta 70. hamarkadetan musikak eragin handia izan zuela, baina batez ere, eragin soziologikoa, esango nuke nik. Sasoi hartan, eta lehen aldiz, musika fenomeno masibo izatera iritsi zen, jende multzo handiak biltzeko eta ikusmolde ideologikoak zabaltzeko gai zela erakutsiz. Baina musikaren industria oraindik hastapenetan zegoen, gaurko zenbaki eta kopuruekin konparatuz. Gure artean tokadiskoak etxe banaka batzuetan bakarrik zeuden, diskoak ia Gabonetan bakarrik erosten ziren eta musikari handien kontzertuetara joatea amets hutsa zen. Gaur, ostera, musika-ekiporik ez da inongo etxetan falta, diskoen salmentak ikaragarri gehitu dira eta kontzertu handiak noiznahi antolatzen dira gure inguruan. Orduko eta gaurko datuak konparatzea ezinezkoa izango da, baina gehikuntza oso handia izan dela bistakoa da.

Gehikuntza honen adierazgarriarik garbiena egun argitaratzen diren diskoen zerrenda amaiezina litzateke. Aldizkari eta komunikabide espezializatueta aurkezten diren disko berrien %80a talde-sortu berri edo ezezagunei dagokie. Musikazale arruntari ezinezkoa zaio aukera egiteko behar lukeen ezaguera-maila minimoa lortzea eta gustukoa litzuzkeen hainbat disko ezagutu gabe geratuko da. Eta gainera beste arlo batzuk ere jorratu nahi izanez gero, hala nola, jazz, musika sinfonikoa edo herri-musikak, ba, orduan jai du. Egiten ari den musika guzitik gero eta zati txikiagoa ezagutu ahal izango du.

Bizi dugun garaiko zigorra: ugaritasuna. Ditugun ahalbideekin beraren osotasunean gozatu ezin dugunez, ezintasunaren mingotsa dastarazten diguna.

Mikel Irizar



Hau zer den jakitea nahi ba duzu etor zaitez gurera

ERESI

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

MONTE TABERNA

Maalako Errebala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik, astelehenetik ostiralera
Otalora, z/g.
Tfnoa: 79 37 76



TXIKIAK oinetakoak

Otalora Lizentziatua 21, Tfnoa: 79 44

ECUADOR

Kontzesiño 2, Tfnoa: 79 14 06

“Burgales”-enean menestra prestatzen

Udaberria dugu menestra jateko urteko sasoirik egokiena. Jakina da gure ortuetan oraindik eta hemendik aurrera aurkituko ditugula menestra-rako behar diren barazki gehienak, eta menestrek zerbait behar izateko-tan barazki freskoak behar ditu.

Honetaz zerbait jakiteko Aretxabaletako “Burgales”enera inguratu gara, ze ondo ezaguna da bertan prestatzen den menestra.

Orain ezagutzen dugun “Burgales”enak 1950 urte inguruan zabaldu zituen ateak, nahiz aurretik tabernari moduan ezagunak izan.

Gaur egun, sukaldean, Dorita eta Rosarito Arze aritzen dira, jakituria beren ama Josepa Errastirengandik jaso dutenak.

Euren esanetan ez omen du menestra honek sekretu handirik, bete beharreko detailetxoren batzu baino:

– Jeneroa ahal denik eta freskoena izan behar da, beraiek ez omen dute sekula potekorik erabiltzen.

– Barazki ura irakiten dagoenean bota behar da eta ahalik eta denbora gutxienean egosi, horrela zenbat eta su indartsuagoa eduki hobeto.

– Barazkiak banan banan egosi behar dira beti.

Hona hemen bada, gu egon ginen egunean prestatu zuten menestren errezeta:

Osagaiak: Idarrak
lekak
baba baltzak
zarbetatik penkak ba-
karrak
azenarioak
patatak
espinakak
alkatxofak
eta berakatz freskoa.

Lehen esan bezala, barazkiak

banan banan egosi, ura eta gatzare-kin bakarrik.

Ez dute ezer albardatzen.

Patatak adorno gisa jartzen dituzte, frijituta, forma borobiltxoarekin.

Berdura guztiak egositakoan kapatan ipintzen dituzte, alkatxofak, patatak eta espinakak gainean doazelarik. Aparte saltsatxo bat ere egiten dute idar edo alkatxofa ura horretarako erabiliz. Ur honi, behar baldin bada, urin apur apurtxo bat botatzen zaio saltsa sendoketako. Saltsa gainetik bota eta ontziari eragin.

Mahaira atera behar den momentuan berakatz berdeekin erretako olioak gainetik bota eta kitto!

Morokil taldea

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

**ERAIKUNTZAK
ETA
BERRIZTAPENAK**

BENGOA

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

ARRASATE PRESS

Bidal ieazkiguzu
zure kolaborazioak

Forma fisiko ona (V)

Aurreko aste hauetan forma fisikoari buruz hainbat gauza esan ditugu, baina oraindik garrantzitsuena esateko geratzen zaigu: **Forma fisiko on hori nola lor dezakegun.**

Badira, entrenamendu neketsuak eta aszetek daramaten bizimodua derrigorrezkotzat jotzen dituztenak, baina egia esateko guzti hau askoz errazagoa da eta edonork egin dezakeena, aktibitate fisikoa galerazten duen gaixotasun larriarik ez izanez gero, noski.

Denbora pixka bat hartu beharko dugu forma fisiko ona lortzeko, hori derrigorrezkoa da. Telebista aurrean denbora asko pasatzen dugu eta era berean ezer gutxi ematen diguten ekintzetan: geure soina, berriz, dugun bakarra eta geure bizi guztian geurekin izango duguna, ez dugu behar bezala zaintzen; eta gure azke-

neko urteetara iritsi arte burua eta gorputza gazte mantendu nahi izanez gero, bakoitza bere buruaz arduratzea ezinbestekoa da. Egia da bate-tik adin kronologikoa dagoela (jaino ondoren igarotzen diren urteak) eta adin biologikoa bestetik, gure gorputz eta buruaren egoeraren arabera neurtzen dena.

Hogeitamar urterekin zaharra izan daiteke, eta modu berean, hirurogei urte izanik gazte mantendu.

Urteen iragana geldireraztea ez dago inoren esku, baina gorputzaren zahartzapena atzeratzea lor dezakegu, horretarako:

1) Egizu kirol motaren bat adibidez, igerian, korrika edo bizikletan ibili, astean hiru aldiz, 40-50 minutu gutxi gorabehera, sesio bakoitzean, aurretik eta bukatu ondoren, gimnasia eta teinkadak ahaztu gabe.

Gogoratu **zalutasuna=gaztetasuna**

2) Zaindu jaten duzuna: animalien koipea, okela eta enbutido edo hestekiak gutxituz eta fruituak, barazkiak eta lekariak gehituz.

Kilo gehiegi badituzu, behar duzuna baino gutxiago jan ezazu egunean, horrela soinean dauden erreserbak erabiliz pisua jaitziko da.

3) Tabakoa eta edari alkoholikoekin neurria gutxitu. Moderazioz erabiltzea (5 zigarrotik behera eta ardoa bi basokada egunean) ez da arriskutsua; baina ez ahaztu, dena moderazioz.

4) Lasaitzen ikasi: urduritasuna, tentsioa, gehiegizko ardura ez dira lagun onak.


*Eukeni Olabarrietá
Arantxa Lizaso*




**Deba Garaiko
txirrindularien
denda**

Zure denda

San Lorenzo 1 Tfnoa: 78 29 86 OÑATI



KONTRATAK OROKORREAN



Foruen Enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN

SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

ETXEBIZITZAK

- Pisu konpartitzeko neska behar dugu. Tfnoa: 79 69 82 (gauetan)
- Pisu txikia errentan hartuko nuke. Aurrez lehen hiru hilabeteak ordainduko nituzke. Miguelez galdetu (bazkalorduan). Interesatuek dei 79 97 34 tfnora.
- Torreviejan Bungalows-a salgai. Hilabeteak: Ekaina, Uztaila eta Iraila. Gaueko 9.30etatik aurrera deitu, 79 15 74 telefonora.
- Laredo: Apartamentua salgai. Interesatuek dei 79 52 80 telefonora
- Etxabea eta 2. pisua salgai Erdiko kaleko 6an; Tfnoa: 79 49 36
- Kontsulta medikoa jartzeko, pisua errentan hartu nahi da. Interesatuek dei 11 39 57 telefonora. Gauetan
- Udarako aproposa, Algortan pisua salgai. Bista onak, Aldapas poligonoa. 3 gela, egongela, sukaldea eta komuna. Tfnoa: 469 82 69; gaueko 9etatik 10etara. Bitartekorik ez.
- Pisu salgai erdialdean. Interesatuek dei 79 29 82 telefonora
- Etxebizitza salgai Bergaran, Zubieta kalean. Interesatuek dei 76.38.55 (jatorduetan) edo 76.44.53 telefonoetara.
- Lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi dugu Arrasaten. Merkea bada hobeto. Tfnoa: 79 09 00. Lorea.
- Bikoteak, lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi du. Tfnoa: 79 70 29. Iñaki.
- Mutil eta neska! gelarik libre edo banatzeko baduzue, ondo etorriko litzaidake. Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 79 52 89 telefonora. Aste bukaeretan: (94) 484 90 53 telefonora.

- Torrevieja-n bongalow-a alokatzen da. Ekaina, Uztaila, eta Irailean. Deitu 9etatik aurrera. Tfnoa: 79 15 74.
 - Aretxabaletan pisua salgai. Loramendi, 11. Tfnoa: 79 04 62
 - Janari-denda salgai. (jubilazioagatik) Santa Teresa kalean. Tfnoa: 79 50 18
 - Kontsulta Medikoa jartzeko pisua behar dugu alokairuan. Interesatuek dei 11 39 57 telefonora. (gauetan)
 - Ikasleak pisu bila. Interesatuek dei 55 14 43 telefonora
 - Donostian, Antigu inguruan, pisua alokairuan Uztaile, Abuztu eta Irailean. Saloia, bainugela eta telefonoa. Eguzki begira, dena kanpokaldera. Interesatuek dei 79 14 69 telefonora
 - Pisu salgai. Telefonoak: 79 81 23 eta 79 63 84 Aretxabaleta (Puerta Sol)
 - Altamiran garaje-plaza salgai. Tfnoa: 79 38 20
- ## LANA
- Edozein lan egiteko prest nago. Kontabilitatea eta mekanografia menperatzen ditut. Deitu arratsaldeko 8etatik aurrera, 79 52 96 Tfnoa. Karmen
 - Informatikako irakaslea behar dugu Paskal programaren klase partikularrak emateko. Interesatuek dei 79 99 82 telefonora. (Miren). Urgentea da.
 - Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuzke. 79 76 81. Lorea.
 - Neska heldua prest legoke etxeko edo eskailera lanak egiteko. Arratsaldero 4etatik aurrera. Tfnoa: 79 80 92
 - Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar dugu Gasteizerako (ahal dela euskalduna) Ordelegia: goize-

- ko 8etatik arratsaldeko 6etara. Interesatuek dei 945 / 23 03 30 telefonora. (deitu gaueko 8etatik 9etara)
- Ingeles klaseak ematen dira (egustenero). Tfnoa: 79 41 24
- Emakume euskalduna prest legoke etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko (egun osorako). Interesatuek dei 79 07 73 tfnora.
- Neska gazteak etxeko lanak edo umeak zainduko litzuzke udan. Interesatuek dei 79 88 73 telefonora. (arratsalderan)

SALEROSKETAK

- Egoera onean dugun 96 bajo duen "pado soprani" akordeoia salgai. Interesatuek dei 79 40 51 telefonora.
- Puch Condor II markako motorra salgai. Tfnoa: 79 87 72
- Seat 127 SS-k salgai. Interesatuek dei 79 80 08 telefonora (gaueko 9,30etatik aurrera)
- Ondo hornitutako ileapaindegia salgai. Tfnoa: 79 95 86
- Estrenaturik dagoen Denda Chalet-a salgai. Iaz erosi. Palma-4 modelo. Merkea. Interesatuek dei 79 07 73 telefonora.
- "Minerva" balantza elektronikoa salgai. Tfnoa: 76 11 60
- Bigarren eskuko paseo-bizikleta erosi nahi dut. Interesatuek dei 79 67 35 telefonora 9etatik 5,30etara.
- Motorra, haundixe, zaharra bada be ez dutzo importa. Merke badauketzu erosiko neuke. Tfnoa: 79 88 23.
- Hozgailua eta garbigailu bat behar dira lehenbaitlehen, merkeak badira hobeto. Tfnoa: 79 88 23.



ARRASATEN HILDAKOAK

Maria Carmen Egaña Muruamendiaraz,
72 urte Maiatzaren 22an

Petra Aspe Leaniz,
88 urte Maiatzaren 23an

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zeharkale estaila 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



"...benga, oin fuego, e!..."

Mutikotan lagunei beti irebazi

Ni Oñetiko Uribarrin jaixo nitzuan 1912xen eta gure mutiko denporan Luziano Montero, Ezkerria, Trueba,... eta horreik zittuan korredoreik onentxuenak. Eta gu, ba, Oñetittik mutiko kuadrillie juten gitzuhan hemen hurrien iñun karrerarik baauen. Eta gero etxeruzkuetan egundoko lutzie eukitten gaixuan geure artien eta nik danai jaten nutzien esprifien. Eta hola behin anaiek esan justan "hi, Mondrauen jak karrera bat eta neuk ekarriko dustat errubera pare bat tubulardunek, jarriko jutzau quadro zaharrai eta haraxe juen biedok". Kendu gutzan guardabarrosak, preparau gaixuan ondo, karrerretarako moruen, eta anaiek: "ala, aber oin zela habillan, ein hortik Agorrosifietik bueltie". Juan nitzuan eta bueltakuen han etxe inguruen aldapie dezentie ta nik jo ixprifie ta bestiek txalo. Gustora mutikue!

Lehenengo karrerie Mondrauen

Bai, alpargatakin; frakak, barréz, han urreko etxekue ibiltten zuan fubolien eta harek itxi jutzan, hortako motx zabalak, abixada apur bat hartzen zanien flaflafla, haixiaz banderien pare.

Edozein moduten be, etorri gitzuhan Mondrauera eta metie

Gregorio Idigoras (I): "300 kilometroko etapak eitten gituan gure denporan"

BIZIKLETA MODERNUEK

Hasieran karrera txikixetan-eta ibilli giñenien, egurrezko llantak pe ebali gittuan. Eta etzittuan txarrak, e!

gaukan Maalako panadeixa parien bañe nik etxakixat ba ondo entendiru ez ero... Nik uste naixuan ELMA parien auela. Eta bagatozak danok grupuen eta Legargañen, fiu! nik danai hanka! Bañe ELMA inguruen zinttaik ikusten ez-eta... galdute. Maalara orduko beste batek tak, hutsaittik aurrie hartu. ELMA onduen izen balitzok neuk irabazten naixuan bañe bigarrenaz konformau biher! Orduen anaiek heldu justan eta "benga oin fuego, e!"

Gero "Gran Premio Eibarresa"

Bai, oin Vuelta al Pais Vasco dana lehen "Gran Premio Eibarresa" zuan. Rekorrudue izeten zuan Eibar-Madrid Madrid-Eibar, lau etapa. Eta hirugarrena izan zuan Madrid-Burgos. Hor etapa hortan hanka eimde ibilli nitzuan, 12 miñutuko diferentziaz, Somosieran, bakarrik. Botaten juan txingorra... jota zurittute dana!

Egun hartan e... ein nauen majadeixie ein ezpanau etapie neuk ataaten naixuan bañe... Pasau zuan, ba, niaz juan zuan Aiastui beste oñetiar bat kotxiaz eta harek emon justan kafe berue termo baten eta nik-pa zela hotzak ninguen hartu ein biherrien izterretara bota. Haretxek galdu nindduan.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Beste baten e konbatia gertautu zeuken bi lagunek. Profesionalak. Konbatia jokatu baiño lenao, batek eztakit pa, zeoze, kalentura antza, eta ezingo zebala jokatu. Konbatia atzeratu eziñ, da joan da puertora eta kriston arrantzalia, len be konbatian ibilittakua.

— Buo hi, etorri hari konbatia eittera.

— Zela joango nok pa ni, gertau ta ezer ein barik.

— Hi trankill etorri. Dirua be irabazikok galduta be ta, dana ona izango da. Gaifera ezta bera be oso gogorra ta.

— Bueno bueno.

Jo dau sirenia ta, hasi die, ta, taka taka, buelta ta jira ta iñok golpeik pez, da danba, joten dau bestiorrek arrantzalia begi onduan eta jota begi beltz beltza. Tan, joten dau txiliñak tilin tilin, da, benga baztarrera. Kendu jaue limoia ahotik eta, entrenadoriorrek e:

— Hi tarankil, trankil egon, ikutuik pe eztosek eñ da, hik pez baiña berak pez.


Tiliñak jo dau ta, "segundo combate", da, da, hasi die bueltaka bueltaka, danba, jo dau berriz beste begi onduan eta beste begiondua be beltza. Kendu jao limoioi, emon jao ur trago bat...

— Hi trankil egon e, ondio eztosek ikutuik pe ein dda. Hi trankil, ikutuik pez eztosek ein dda.

— Hi ba, zainduik arbitrua, zeattik hemen baten batek joten jittuk ostixa batzuk...

Asier Agirreabeña (Bergara)

Juan Martin Elexpuru



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



Trenaren etorrera

E

ta halako batean, majo kostata, trena iritsi zen Arrasatera. Mekolalde-tik

Gasteizera zihoan "Vasco-Navarro" trenbidea genuen. Mekolalden, Bilbo eta Donostiara joan ahal izateko; Gasteizen, aldiz, Lizarrarako trena hartu edo "Norte"ko trenarekin konbina zitekeen. Egia esan, komunikabide hau egiteak buruhauste franko eman zuen, Leintzeko haranetik Arabako lautadara igotzeak batez ere. Eskoriatzatik Arlabanerainoko

aldapak, bihurguneak eta tunelak amaigabeak ziren. Hala ere, ezin esan tren zahar hark xarma berezia ez zuenik. Trena heldu, 1917ko Abenduaren 22an heldu zen lehenengo aldiz Mondragoera. Baina honako argazki hau 1919ko Urriaren 12koa duzue, Araba aldeko eta Gipuzkoa aldeko trenbide-zatiak lotu zituzten egunekoak, hain zuzen. Hainbat bider diputatu, ministrari eta gobernuburu izandako Eduardo Dato Iradier politiko kontserbadoreari egin zitzaion ongi-etorria da I. Ojangurenen fotografian dena.

—Fotozahar sariketa—

Ze urtetan kendu zuten Arrasaten trena?

—Joan den asteko irabazlea—

Pili Ortueta arrasatearra ("Verdury deitzen genion azokari")

Jerardo Elortza

Egundoko **WALK-MANA**
-VIGURI Bideo Klubak emana-
irabazi nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:

Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate




...eta gainera

VIGURIk

hilaren bukaeran 14'ko koloretako
markako TELEBISTA BAT
zozkatuko du hileko parte
hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate



UDALEKU IREKIAK

Arrasateko 6tik 12 urte bitarteko haurrentzat. (biak barne)

2 txanda

1.— Uztailaren 4etik 13ra

2.— Uztailaren 17tik 28ra (Larunbata barne)

ORDUTEGIA

GOIZEZ: 10'00 etatik-13 etara

ARRATSALDEZ: 3 etatik 7 etara

INSKRIPZIOAK:

NON:— Haurra ikasten ari den ikastetxean.

— AED Elkartean Pabio Uranga,4 behea. Tfnoa: 79 54 46

NOIZ:— Maiatzaren 30 erarte.

PREZIOA: 2.000 pta.

OHARRA: Txanda bakoitzean gehienez 200 hurrek parte ahal izango dute; beraz izena emate lehentasuna kontutan hartuko da. Informazio gehiago nahi izanez gero AEDn. 79 54 46 telefonoan.

**Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz
Antolatzaile: AED Elkarte**

YULLen NAHIA

Begiak ireki ditu une batez borreroak eta, ustekabean, lurrean belaunikatua dagoen giza-gaixoarenarekin gurutzatu da bere begirada. Ez du ordea konplizitate horrek aizkoraren ziztada moteldu eta lurrera erori da, ezinbestean, biktimaren burua. Irekiak dauzka bi begiak, ez nik ikusitako filmean bezala, eta ez du inork heriotik erreskatatu, beste haietan gertatu ohi zen bezala. Odola bera ere, gorri-ka da. Egitazkoa.

Borreroak, aizkora zipriztindua alde batera utzi eta bere aurpegia estaltzen duen kapusai beltza erantzi du. Ez du honek inoiz filmerik ikusi. Kondenatu erdibituaren aurpegi ihar-tuan keinu irrifartsu bat azaldu da; borreroa, lana bukatu duelako edo emakumeren bat zai daukalako beharbada, lasai, bere begietan barrena galdu denean. Eskuak luzatu ditu bik-tima baztertuak, eta burua, zatitutako gorpu-tzaren lepoari itsatsi dio.

Zutitu egin da kondenatu ohia. Alkondara urdinarekin garbitu ditu zauri odoleztuak eta borreroaren urratsak urrundu diren bide bere-tik zuzendu ditu bere pauso aldamaldatsuak.

Geroago, bortxatu egin omen du borreroa. Nik hala nahi izan dudalako, eta filmetan ikusten ez den gauza delako.

Yull Trull

KLINIKA DENTALA

**Odontologia orokorra
Ortodontzia
(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 73 88



Fotokopiak
Enkuademazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

■ **Fahrenheit:** Ray Bradbury idazle amerikarrak *Fahrenheit*, gerora Francois Truffaut zuzendari frantsesak pantailaratuko zuen zientzia fikziozko elaberria idatzi zuen. Ospe handiko izen hori hartuz, Hasier Etxeberria elgoibartarrak hiru ordulaurdeneko kultur saioa ematen digu ostiralero ETB1ez, gueko 22:15etan.

Gogo handiz hasi nintzen ikusten *Fahrenheit*, Hasierrek *Lapikoka* saioan egindako lana atsegina bait nuen eta kultur mailan ia beste ezer ez zegoelako.

Aurkezlearen lana txarto ez badago ere, ez dut uste bat ere asmatu dutenik programaren eskema eta nondik norakoarekin. Badirudi *Fahrenheit*-ek eman nahi digun mezua hauxe dela, maiuskulaz idatzitako kultura ere badela eta berau, ezinbestean, aspergarria dela. Erakutsi dituzten bideo asko Garizuma baino aspergarriagoak dira, monotonoak, hutsak.

Ondorioa, kulturaren oinezko gizarajoon artean, begibistakoa da. Ni behintzat, aspertu egiten naiz *Fahrenheit* ikusten. Hasier guztien azpitik eta borondate on guztien gainetik, handigura eta urruna aurkitzen dut. Beste kanaletan jolasten hasteko aitzakia paregabea.

■ **Kanpaina politikoaren banaketa Euskal Komunitate Autonomoaren komunikabide publikoetan:** Bizkaiko Hauteskundeetarako Juntak hala erabakita, ETBn eta Euskadi Irratian, gainerako erdal komunikabideetan bezala, hauteskunde hauetarako doahinezko espazioen banaketa egiteko orduan, Estatu mailako azken emaitzak hartuko dira kontutan. Erresultatu hoi arabera, beraz, PSOE, PP, CDS, eta IU izango dira, hurrenez hurren, espazio gehien hartuko dutenak. Horiek ez dira, inondik inora, hiru probintzia hauetan (Nafarroan ere bergauza) lortu dituzten emaitzen ispilu, baina aipatutakoen arteko inortxok ez du jokoa salatu, ezta IUK ere. "Una, grande y libre" azkeneraino.

■ **3etan, 7etan eta 10etan:** Bestela nahiko buruhauste izango ez bagenu moduan, jo eta su ari zaigu ETB sariketa horren iragarkia errepikatuz. Hain da txarra, ze azkenean buruko mina eta guzti ematen bait du. Hobe lukete zorioneko bidaiak lehenbailehen erregalatea. Horrelako kaparradarik, horraitio!

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Pilota**, ostiralean, hilak 2an, 23,30etan. Bigarren mailako eskuz banaketako finala: Soroa III, Urzainki-ren kontra, zuzenean Anoetatik. Komentarioez Xabier Euskitze eta Kepa Uriarte arduratu dira.

■ **Funtzioa**, ostiralean, hilak 2an, 21,15etan. Tapia eta Leturia trikitalariak, USAtik etorri berriak, estudioan elkarrizketatuak izango dira, eta aktuazioa eskeiniko dute. Potato talde gazteiztarraren aktuazioa, eta Teok eta Charlesek bidai kulturaleri buruzko sketcha egingo dute.

■ **Jende Arrunta** ("Ordinary People", 1980). Larunbatean, hilak 3an, 22,25etan. Zuzendaria: Robert Redford; Antzezleak: Donald Sutherland, Mary Tyler Moore, Judd Hirsch. Erdi mailako famili baten bizitza normala, status sozial eta ekonomiko on baten bila, erabat aldatzen da seme nagusia hiltzen denean.

bideoak



Purpura kolorea: Hona hemen Spielberg-en filme zoragarria. Alice Walkerren Pulitzer saria irabazitako elaberri ederrean oinarritua, Spielberg bere maisutasunaren froga galanta eman digu filma honekin.

Amerikako hegoaldeko nekezari munduan lekutzen da filmea Whoopi Goldbergere urteko aktore saririk onenari emandako Urrezko Globo irabazi zuen.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Nahaste-borraste

Berau burutzeko, lehenik definizioei dagozkien hitzak asmatu eta idatzi behar dituzu. Ondoren, eta laukietan geratuko zaizkizun hizkiak ordenatuz mende hasierako euskal poeta baten goitizenaren eratzan saia zaitez.

- 1) — — — — — — — — —
- 2) — — — — — — — — —
- 3) — — — — — — — — —
- 4) — — — — — —



- 1) Futboleko aritzeko beharrezkoa den esfera.
- 2) Bainuetxe bat duen Gipuzkoako herri bat.
- 3) Erregai beltza.
- 4) Sendo, mamitsu.

Joan den asteko Bertako hitz ahaztuak denborapasaren soluzioa gaizki agertu zen. Erantzun zuzena BERASE da. Barkatu

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Oso erabaki inportatea hartu beharko duzu. Utzi problema horiek alde batera eta egin zerbait merezigarria, bada garaia serio pentsatzeko.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Ezagutu duzun pertsona ez duzu behar ahaztuko, eragina handia sortu bait dizu. Laster haren berriak jasoko dituzu.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Helmuga guztiak betetzea ezin dituzula lortu ulertu behar duzu, batzuetan gauzak etortzen diren moduan onartu behar dira.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Egoera onean zaude momentu honetan, baina laster izugarriko aldaketa nabarituko duzu, arlo guztietan gaizki ibiliko zara, baina ez da zeure burua hiltzeko beste izango.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Hodei beltzak daude zeure laneko giroan. Lanaz aldatu beharrean aurkituko zara edo txarrago, lanik gabe geratuko zara.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Lana dela eta, bidaiari batzuk egingo dituzu, hasieran ez zara ondo moldatuko baina laster gustora hartuko dituzu.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ez ausartarena egin, ez bazara ausartzen hori egiten esan ezetz, oraindik garaian zaude. Lasaiago egingo duzu lo.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Arazo zaharretan zabilta bueltaka eta horrek ez dizu on egiten eguneroko lanean. Hori ahazteko lagunekin gehiago egon beharko zenuke.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Harrotasun horrek ez zaitu bide onetik eramango, lagunekin batez ere gaizki ibiliko zara. Noizean behin, amore ematea ondo datorkigu denoi.




CANCER
Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra

Ez dagokizun lana egiten baduzu ez haserretu, orain egiten duzuna egina dago. Beraz, merezi duzun alperraldia etorriko zaizu.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Joan den asteburuko lasaitasuna sarriago merezi duzu. Badakizu zer egin behar duzun hori lortzeko. Beraz, ez burua konpikatu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Daramazun bizimodu hori ez da batere osasungarria. Ohitura txar horiek aldatu egin beharko zenituzke. Zure osasuna arriskuan dago.

Zein markatako kotxeak erabiltzen ditugun gehien arrasatearrok.

Azken lau hilabetotan, hau da, Urtarriletik Apirilera bitartean, Arrasaten 332 ibilgailu erosi da; hauetatik 317 turismoak izan direlarik eta gainontzekoak kamioiak eta motorrak.

Markaz marka baturik honela sailka daitezke, epe honetan erosi ditugun kotxeak gehienetik gutxie-nera:

— Ford	68
— Renault	62
— Opel	60
— Fiat	28
— Citroen	26
— Seat	22
— Volkswagen	18
— Peugeot	11

— LaGa	4
— Alfa Romeo	4
— Nissan	3
— Audi	3
— Austin	3
— Rober	1
— Toyota	1

Zein modelutako kotxeak erosten ditugu gehien arrasatearrok?

Berriz ere epe berean mugituz, honako hau izan da sailkapena:

— Opel Kadett	28
— Renault-19	26
— Ford Fiesta	23
— Ford Escort	20
— Citroen AX	17
— Opel Corsa	16
— Opel Vectra	15
— Renault 21	13
— Ford Orion	12

— Renault Express	11
— Seat Ibiza	10
— Fiat Tipo	10
— Citroen Bx	9
— Volkswagen Golf	9
— Renault-5	8
— Fiat Regata	8
— Fiat Uno	8
— Peugeot 205	7
— Ford Sierra	6
— Ford Transit	6
— Volkswagen Polo	5
— Seat Malaga	5
— Alfa Romeo	4
— Lada	4
— Beste batzuk	35

Hilabeteka zein marka izan den erosiena Arrasaten

Urtarrila	Renault
Otsaila	Ford
Martxoa	Renault
Apirila	Opel eta Ford

NAHITAEZ. NABARMENGARRIA.



Badira besteen artean nabarmengarri diren autoak. Nahitaez, gainera. RENAULT 19 CHAMADE bezalako autoak. Hiru gorputzen itzurarik, 0,31-ko CX hoderenaz.

Ekipamendu-mailan gauzarik arruntanak ere apartekoak ditu. Eta bi motorizazio-maila: 1.390 c.c.ako Energy isil eta arina, eta 1.721 c.c.akoa. Aukera hauengatik da nabarmengarria automobil hau. Nahitaez.

**RENAULT 19
CHAMADE**

ZATOZ IKUSTERA: TALLERES MECA; S. A. ARABA ETORBIDEA Z/G TFNOA: 79 59 99